

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Leyre Antoñanzas eta Alba Fernández, Tabakorik gabeko Munduko Egunaren eskolako marrazketa-lehiaketako irabazleak

*Bideo-lehiaketako saria Zizur BHI-k egindako muntaketak eskuratu du*

Viernes, 29 de mayo de 2015

Barañaingo Santa Luisa de Marillac ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasle Leyre Antoñanzas eta Iruñeko Navarro Villoslada BHIko Bigarren Hezkuntzako ikasle Alba Fernández izan dira kartelen eskolako lehiaketaren irabazleak. Osasun Publikoaren Institutuak antolatu du lehiaketa tabakorik gabeko Munduko Eguna ospatzen dela-eta.



Gainera, Zizur BHIko ikasleek egindako "[Rebobina-atzera eraman](#)" ikus-entzunezko muntaketa arrazoi beragatik antolatutako bideo-lehiaketako irabazlea izan da, Nafarroako Dentisten Elkargo Ofizialak emandako saria.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak hilaren 31n ospatzen den tabakorik gabeko Munduko Egunarekin bat egiten du, eta aurten honako honetan oinarrituko da: tabakoaren legez kanpoko merkataritzak biztanleen osasunari eragiten dioten kaltean, gazteengan bereziki. Lehiaketan lagundu dute ere, Hezkuntza Departamentuak eta Medikuek, Dentista eta Erizaintzako elkargo ofizialek, bai eta Familia Medikuntza eta Komunitateko Medikuntzaren Espainiako Elkarteak ere.

Sari-banaketa, gela guztia Sendavivara (Lehen Hezkuntza) eta Rocopolisera (Bigarren Hezkuntza) joatea eta kirol-arropa erosteko 60 euroko txartela irabazleentzat, gaur goizean egin da. Ekitaldian Osasun kontseilari Marta Verak eta ISPLNko zuzendari-kudeatzaile M<sup>a</sup> Soledad Arangurenen parte hartu dute, bai eta elkargo profesionaleko eta Hezkuntza Departamentuko ordezkariak ere.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako Leyre Antoñanzasen lanean, zigarro bat ikus daiteke erretzeko debekua adierazten duen seinale baten aurrean, ondorengo goiburuarekin: "Yo... ¡paso!, tu... ¡da el paso!" (Nik... paso egiten dut, zuk... eman pausoa!". Bestalde, DBHIko 2. mailako ikasle Alba Fernandezek kartelaren goiburua honako hau da: "Apaga tu cigarro, enciende tu vida" (Itzali zure zigarra, piztu zure bizitza); hautsita dagoen zigarro bat ikus daiteke bertan, landare batentzat lorontzi bihurtzen dena.

Irabazleen gain, Santa Luisa de Marillac-eko ikasle Azahara Treto eta Iker Ezpeleta finalistak izan dira Lehen Hezkuntzako mailan. DBHko mailan, berriz, Mendabiako Joaquin Romera BHIko Leyre Acedo, eta Tuterako Benjamin de Tudela BHIko Andrea Chivite ikasleak izan dira finalistak.

### **Tabako-kontsumoaren hasiera, 15 urterekin**

14-29 urte arteko gazteentzat egindako Nafarroako 2013-2014 Gazteria Inkestaren arabera, tabakoa erretzen 15,3 urterekin hasten dira gazteak, eta egunero erretzen 16,5 urterekin, batez beste. 10 gartzetatik 6k ez du inoiz erre; aldiz, 10etik 2k egunero erretzen du. Egunero erretzen duten gazteen portzentajea 21,3 da, 8,7 zigarro erreta batez beste; eta zifra horrek gora egiten du adinean aurrera egin ahala. 14 eta 17 urte arteko taldean, nesken portzentajea mutilena halako bi da (10,2 eta 5,3, hurrenez hurren).



Leyre Antoñanzasek egindako lana.

Biztanleen artean, oro har, inoiz erre ez dutela dioten pertsonen kopurua igo egin da Nafarroan (osasunaren estatuko azken inkestako datuak, 2011koak), hau da, % 60; aurreko azterketan, berriz, 2006koa, portzentajea % 47,5 zen. Biztanleen % 23,3k erretzen du (% 25,6, 2006an), Estatuko batez bestekoaren azpitik dagoen portzentajea. Nafarroa, gainera, 20 zigarro edo gehiago kontsumitzen duten erretzaile gutxien dituen komunitatea da. 45-64 urte arteko adin-tarteak erretzen du egunero zigarro gehien.

Nafarroako minbizia-mota batzuetako biziraupena igotzen ari bada ere, 2014-2020 aldirako Osasun Planaren proiektuak, adierazle negatiboen artean, ondorengoa nabarmentzen du: tabakoari lotutako tumoreek eragindako heriotza-tasak berdin jarraitzea, eta minbizia-mota horrek emakumeen kasuan gora egitea.

### **Tabakoa kontsumitzen hasteko prebentzioa eta erretzeari uzteko laguntza**

Nafarroan, Lehen Mailako Arretako osasun-zentroek Erretzen uzteko Laguntza Programa (PAF) eskaintzen dute, eta haren barnean zenbait esku-hartze-mota sartzen dira: gomendioa, banakako arreta, taldekakoa eta laguntza farmakologikoa. Lehen Mailako Arretako iturrien arabera, 2014an 4.733 erretzaile berri izan dira; aurreko urtearen aldean, jaitsi egin da, eta igo erretzeari uzteko laguntza jasotzen dutenen kopurua, bai eta laguntza jaso duten erretzaile ohien ere.

Erretzen uzteko Laguntza Programari laguntzeko tresna modura, prestakuntza egin da lehen-mailako arretako ekipoen erdiarekin gutxi gorabehera.

Gainera, ISPLNren webgunean erretzeari uzteko laguntza-programa bat eskura daiteke online bidez ("[Erretzaile ohiek ez dute etsitzen](#)"), doan eta 15-25 rute arteko gazteentzat dena bereziki.

"Tabakoaren aurkako" legeak duen jarraipenari dagokionez (42/2010 Legea), iaz, ISPLNk egindako salaketa- eta zigor-kopurua % 50ean murriztu da 2013ko urtearekin alderatuz. Salaketak eragin zituzten arrazoiak izan dira, alde batetik, kerik gabeko espazioak zuzen ez seinaleztatzea, eta bestetik, tabakoa desegoki kontsumitzea legeak debekatutako tokietan.

### **Galería de fotos**




Alba Fernándezen lan irabazlea.



Azahara Tretoren marrazki finalista.



Iker Ezpeletaren marrazki finalista.



Leyre Acedoren lan finalista.



Andrea Chiviteren lan finalista.